

## **Lehiaren Euskal Agintaritza, alarma egoeraren ondorioz eskari handiagoa duten sektoreetan egon daitezkeen gehiegizko prezio posibleak aztertzen ari da**

---

Bere giza baliabideak eta baliabide materialak erabiliko ditu, eta Kontsumobiderekin lankidetzan arituko da, Lehiaren Defentsarako Legeak debekatzen dituen operadoreen jokabideak gertatzen diren ala ez egiaztatzeko

Debekatutzat jo daitezkeen jokabideak zaintzea are beharrezkoagoa da Covid-19aren pandemiaren aurrean, are gehiago kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko funtsezkoak diren ondasunei eta zerbitzuei buruz ari garenean


---

**BILBON, 2020ko apirilaren 1ean/ Lehiaren Euskal Agintaritza, alarma egoeraren ondorioz eskaria nabarmen handitu den sektoreak zaintzen ari da, Lehiaren Defentsarako Legeak debekatzen dituen operadoreen jokabideak gertatzen diren ala ez egiaztatzeko.**

Salbuespenezko egoeran, Covid-19aren pandemiari aurre egiteko alarma egoeran, besteak beste, debekatutzat jo daitezkeen jokabideen zaintza are beharrezkoagoa da, are gehiago kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko funtsezkoak diren ondasunei eta zerbitzuei buruz ari garenean (hileta-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, segurtasuna, elikadura, etab.). Gainera, jokabide horiek gaitzesgarriak izan daitezke Zigor Kodearen, osasun publikoko araudiaren eta kontsumitzaileei eta erabiltzaileei buruzko araudi bereziaren ikuspegitik.

Lehiaren Euskal Agintaritzak erreklamazio ugari jaso ditu azken aste hauetan, eta, horretarako helbide elektronikoa bat du ([infocompetencia@avdc.eus](mailto:infocompetencia@avdc.eus)), kaltetuta sentitzen diren pertsonak edo erakundeak euren kezak eta salaketak helarazteko aukera izan dezaten. Bere giza baliabideak eta baliabide materialak erabiltzeaz gain, Kontsumobiderekin, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren esku dagoen erakunde autonomoarekin, lankidetzan arituko da zaintza lan hori egiteko.

Funtsezko ondasun edo zerbitzuetan eman daitekeen prezioen igoera jazarri nahi da, gel desinfektatzaileetan edo Covid-19 birusaren kutsatzeak saihesteko funtsezkoa den edozein



osasan-produktutan, besteak beste. Prezioaren egungo igoera, merkatuan dagoen eskaintzak estali ezin dezakeen eskaeraren gorakadaren ondorio izan liteke. Kasu horretan merkatuaren funtzionamenduak markatuko luke prezioa. Hala ere, jokabide hori fabrikatzaileen edo banatzaileen kolusiozko edo abusuzko jokabideen ikuspegitik aztertu ahal izango da.

Hileta-zerbitzuen sektorea ere sentsiblea da prezioen gorakadaren aurrean, Covid-19aren ondorioz hildako pertsona kopuru handiak dakarren presioaren ondorioz. Hori dela eta, Madrilan eta Bartzelonan –hildako kopuru handia dagoen lekuetan– merkatuko ohiko prezioek gora egin dute.

Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinarazi nahi du Lehiaren Defentsarako Legeak debekatu egiten dituela merkatuaren funtzionamendua alda dezaketen gehiegizko jokabideak edo operadore ekonomikoen arteko hitzarmenak.

### **Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz**

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.